

Armanak Askara

edo

Ziberouko Egunari

1889 gerren ourtzoko

Jinkoua eta Herria !

Zuhurtarzuna eta lana !

Eta bizi bethi Uskalduna !

Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maoulen

DETCHEVERRY enian

Atharratzen

CAUTURE enian

Prezioua : BI SOS

OURTHEKO SASOUAK :

BEDATSIA hasten da martchouaren	20 ^{an.}
UDA hasten da aramaiatzaren	21 ^{an.}
LARRAZKENA hasten da burullaren	22 ^{an.}
NEGIA hasten da abentiaren	21 ^{an.}

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthallaren* 17^{an}; — HAOUSTE, *martchouaren* 6^{an}; — BAZKO, *abhirilaren* 21^{an}; — ERROGAZIONIKA, *naiatzaren* 27ⁿ, 28ⁿ eta 29^{an}; — SALBATORE, *maiatzaren* 30^{an}; — PHENTEKOSTE, *aramaiatzaren* 9^{an}; — BESTABERRI, *aramaiatzaren*, 20^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentiaren*, 1^{an}.

LAOUR THENPORAK :

Martchouaren 13 ⁿ , 15 ⁿ eta 16 ⁿ .	Burullaren 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .
Arramaiatzaren 12 ⁿ , 14 ⁿ eta 15 ⁿ	Abentiaren 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhuntze osoua, *ourlhatsez*; ezta ikhousiren Frantzian. — Argizagi ulhuntze phartekoua *ourtharilaren* 17^{an}; goizanko bi oren eta 49^{min.}, hasirik urhenturen da zortzi oren eta 29^{min.} eta ikhousiren da Frantzian. — Ekhi ulhuntze osoua, *arramaiatzaren* 27ⁿ eta 28ⁿ; ezta ikhousiko Frantzian. — Argizagi ulhuntze pharteskoua *uztailaren* 12^{an}; pharte ikhousiren da Frantzian, aratsanko 6^{or} eta 11 orenen artian. — Ekhi ulhuntze osoua, *azarouaren* 22^{an}; ezta ikhousiren Frantzian.



BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓐ erran nahi du : Estiapen hastia *edo* argizagi bethe.
- Ⓑ " Argizagi azken laourdena.
- Ⓒ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- Ⓓ " Argizagi lehen laourdena.



HANITCH KHASU ABIS HOUNI :

ZIBEROUKO, armanaka eginik da bi kaierez algareki jossirik. Lehenak, mehe mehiak, hamabi hilabete- ren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berhezi behar duke, nahidenaren egiteko. Bigerren kaiera *edo* phartia, mintzo dena istoriaz, abis hounez laborariaren-tako,erezetaz, etc., harek ourthe oroz behar duke begiratu arankurareki. Pajjak markaturik dutuke bost ourthez arrount. Bost ourhetako kaier begiratiak, 1892^{an} algarreki josten ahal diateke libru gocho eta balious baten egiteko. Bost ourthe horietan eman artikulien eta erezeten edirengia inprima eraziko dugu 1892^{eko} armanakan urhentzian.

(Begiratzeko kaiera, tchipiaren barnen, egunariaren barnen date; arren aski dukezie lehen bi hollen urratzia ourthiaren burian; ber denboran azken biak urraturik dirateke. Halaz eztukezie ez kaier desegiterik, ez josterik, eta estalgia kountserbatuko duzie.)



ERRAN ZUHUR ZOUNBAIT

EZAGUTZIA ogen ukhen diala da bide segurrena
heltzeko arrazouiala.

Bihar traidore bat da. Hartan fidatzen direnak
trounpatzen tu; bihar, berantegi da; bihar, egunko
egunareki etsai ohatzen ahal eztena da. Segurik ezta
oraia baizi. Bihar ezta gouria : bihar, benturaz, behinere
da.

Badira erri egiten dienak erraiten zaienian lanak
alageratzen diala. Eta haregatik, deus egiagorik : bere
eginbidiak egin tialakoz du ihourk borontia bethi zohardi.

Elhe tarrapatak bertan medisentziala : eztu ezagutzen
erran diala gaichki. Badaki erran diala, bena ez zer.
Hobe da urutia eziaz medisentzia erritia : bada urrenik
haboro, eta bekhatu éginik gutiago.

Trounpatzen ezpaniz, Biblan dut irakourtu : « Zaharo
khaldiak zaouri bat du egiten, eta mihi khaldiak ezurrak
haosten. »

Besteren estakuriez sobera arankura hartzen diana,
beraenen ezagutzeko denbora ukhen gabe hiltzen da.

Ardura merechimentia edireiten uduri arroundaren
pian : ezta bekhan ikhoustia urhiak galtza char batian.

Egiazko dohañ houna, iraiten dian bakhoitza da
arimako bakia.

OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.



Ⓐ a. b. 1ⁿ, aratsanko 9^{or} eta 17^{min}.

Ⓓ l. l. 9ⁿ, gaiherdi eta 50^{min}.

Ⓑ a. b. 17ⁿ, goizanko 5^{or} eta 46^{min}.

Ⓐ a. l. 24ⁿ, goizanko 4^{or} eta 7^{min}.

Ⓐ a. b. 31ⁿ, goizanko 9^{or} eta 19^{min}.

BARANTHALLA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



Ⓓ l. l. 7ⁿ, aratsanko 9^{or} eta 7^{min}.

Ⓐ a. b. 15ⁿ, aratsanko 10^{or} eta 26^{min}.

Ⓐ a. l. 23ⁿ, gaiherdi eta 5^{min}.

1	Asteh.OURTH.	ZIRKONZISION.	1	Ostirale.	s. Iñazio, m.
2	Astizken.	s. Makaire.	2	Neskanegun.	KHANDERALLU
3	Ostegun.	s ^a Jenevieve.	3	Igante.	s. Blasi.
4	Ostirale.	s ^a Fausta.	4	Astelehen.	s ^a Jana, Val:
5	Neskanegun.	s ^a Amelia.	5	Asteharte.	s ^a Agata.
6	Igante.	APHARIZIO.	6	Astizken.	s ^a Dorotea.
7	Astelehen.	s ^a Melania.	7	Ostegun.	s. Romuald.
8	Asteharte.	s. Luzien.	8	Ostirale.	J. Johane M.
9	Astizken.	s. Julien.	9	Neskanegun.	s ^a Apolonia.
10	Ostegun.	s. Marzien.	10	Igante.	s ^a Eskolaztiku.
11	Ostirale.	s. Teodoso.	11	Astelehen.	s. Antero.
12	Neskanegun.	s ^a Tazienna.	12	Asteharte.	s. Tito.
13	Igante.	s. Leonze.	13	Astizken.	s. Jilber.
14	Astelehen.	s. Hilera.	14	Ostegun.	s. Valenti.
15	Asteharte.	s. Paule, erm.	15	Ostirale.	s ^a Faustina.
16	Astizken.	s. Marzel.	16	Neskanegun.	s ^a Juliania.
17	Ostegun.	s. Antoni, er.	17	Igante.	Setuajesimo.
18	Ostirale.	J. Phetir. Err. Jartia	18	Astelehen.	s. Flaviano.
19	Neskanegun.	s. Kanut.	19	Asteharte.	s. Silvano.
20	Igante.	s. Fabien eta Sebast.	20	Astizken.	s. Eucher.
21	Astelehen.	s ^a Añes.	21	Ostegun.	s. Pepin.
22	Asteharte.	s. Vizente.	22	Ostirale.	J. Phetir. Ant. Jart.
23	Astizken.	s. Remoun.	23	Neskanegun.	s. Dosithe.
24	Ostegun.	s. Timote.	24	Igante.	Setajesimo.
25	Ostirale.	J. Pauleren k.	25	Astelehen.	s. MATHIAS, ap.
26	Neskanegun.	s. Polikarpe.	26	Asteharte.	s ^a Batilda.
27	Igante.	s. Vitalien.	27	Astizken.	s ^a Onorina.
28	Astelehen.	J. Johane Kris.	28	Ostegun.	s. Rufi.
29	Asteharte.	s. Frantzes S.			
30	Astizken.	s. Martina.			
31	Ostegun.	s. Petiri Nol.			

MARTCHOUA edo OSTAROUA
Egunak luzatzen dira 2 orenez.

- Ⓐ a. b. 1ⁿ, aratsanko 10^{or} eta 10^m.
- Ⓑ l. l. 9ⁿ, aratsanko 6^{or} eta 9^{min}.
- Ⓒ a. b. 17ⁿ, goizanko, 11^{or} eta 57^m.
- Ⓓ a. l. 24ⁿ, goizanko 7^{or} eta 4^{min}.
- Ⓔ a. b. 31ⁿ, goizanko 11^{or} eta 47^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.

- Ⓓ l. l. 8ⁿ, arastiriko oren 1 eta 56^m
- Ⓔ a. b. 15ⁿ, aratsanko 10^{or} 28^{min}.
- Ⓕ a. l. 20ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 5^{min}
- Ⓖ a. b. 30ⁿ, goizanko 2^{or} eta 14^m.

1	Ostirale.	s. LÉON, Baion.
2	Neskanegun.	s. Sinplize.
3	Igante.	<i>Kinkajesimo.</i>
4	Astelehen.	s. Kasimir.
5	Asteharte.	s. Teofile.
6	Astizken.	HAUSTE.
7	Ostegun.	s. Tomas Akin
8	Ostirale.	J. Joh. Ospit.
9	Neskanegun.	sa Franzesa.
10	Igante.	GOROZUM. 1 ^a .
11	Astelehen.	s. Konstanti.
12	Asteharte.	s. Gregori handia.
13	Astiz. IV Th.	sa Ufrazia.
14	Ostegun.	sa Matilda.
15	Ostir. IV Th.	s. Zakaria.
16	Nesk. IV Th.	s. Abraham.
17	Igante.	<i>Gorozum. 2^a.</i>
18	Astelehen.	s. Gabriel, Ark.
19	Asteharte.	s. JOSEPH.
20	Astizken.	s. Joakim.
21	Ostegun.	s. Benoit.
22	Ostirale.	sa Riktruda, usk.
23	Neskanegun.	s. Viktorien.
24	Igante.	<i>Gorozum. 3^a.</i>
25	Astelehen.	Anontzaziona.
26	Asteharte.	s. Braulio.
27	Astizken.	s. Aletsandre.
28	Ostegun.	s. Gontran.
29	Ostirale.	s. Jonas.
30	Neskanegun.	s. Amede.
31	Igante.	<i>Gorozum. 4^a.</i>

1	Astelehen.	s. Hugon.
2	Asteharte.	s. Franzes P.
3	Astizken.	s. Richar.
4	Ostegun.	s. Isidoro, dot.
5	Ostirale.	s. Vizente Fer.
6	Neskanegun.	s. Prudenzio.
7	Igante.	J.K.PASSIONIA
8	Astelehen.	s. Alber.
9	Asteharte.	s. Akazio.
10	Astizken.	s. Fulbert.
11	Ostegun.	s. Leon handia
12	Ostirale.	A.B. Kompassonia
13	Neskanegun.	sa Hermenej.
14	Igante.	ERRAMU.
15	Astelehen.	sa Anaztazia.
16	Asteharte.	sa Engrazia.
17	Astizken.	s. Anizet.
18	Ostegun.	Osteg. saintu.
19	Ostirale.	Ostir. saintu.
20	Neskanegun.	Nesk. saintu.
21	Igante.	BAZKO.
22	Astelchen.	s. Soter eta Kaio.
23	Asteharte.	s. Jeorji.
24	Astizken.	s. Fidel.
25	Ostegun.	s. MARK, Eb.
26	Ostirale.	s. Clet eta Mar.
27	Neskanegun.	s. Zerazio.
28	Igante.	J. Paule, Khur.
29	Astelehen.	s. Petiri, mart.
30	Asteharte.	sa Katalina, S.



BOZKAZ 1889^{an}


Bozkari khiristien eginbidiaż.

BAIGUN ourthian, 1889^{an}, date deputatiengarberitzia. Oraitugunen lanheginak orano, aitzine-kouenak beno sordei dirateke, nahi bada eta 1885^{an} igorri dugun ordartio beno haboro deputatu chouri ; haien isseiiek eztie ephantchatu ahal ukhen gaichkia egitetik : sera orano gaichki hora ezta hañ handi izan noula eta beitzatekian deputatiak oro erepublikano izan balira. Chourier esker, laborarien hounetan, ezaririk izan da thalabat Frantziaz kanpotik jiten ziren bihier. Ereligionaren kountre izan dira martinet khaldiak, borthizkiago edo echabakiago, noulako ere beitzen ministrouen tchestia.

Igaran ourtheko armanakian erran dugu noulako diren deputatu sarthu nahi diren erepublikanouen thornubillak, utzuli unguriak. Beitakie goure aldetan badela erelijione, badira bai ountsa begiratzen erraitetik ereligionaren etsai direla. Bena badouatza hiriak gainti, beste mihidura die eta erraiten zer nahi dien, ez heben bezala. Bozkan, bada bozkari ehiki lerratzen botza gaichto emaiten. Badirade ountsa nahi dienak, egiaz bibitan Erepublika hugu dienak, eta erraiten ere : sera, heltu da orena, utzuliphourdi eragiten die gathulubat ardouk. Alphora igaran da bai, botza gorri emanik, dolu, sera berant ordu. Emaztek eztie emaiten botzik ; sera hen aldi baliz bali-zate hetan, gizounak beno gizounagorik.

Khristi bozkarier ahatz eztakien, houna orhit ditiala : iñik etzaiela izan behar bardin zouñ nahi alderi emaitia

botza ; Jinkouari khountu eman behar beitukie horrez ; — 2^{ik} kountzentziaz behar diela haitatu gisakouena, aitzineko aldian erelijioniaren althe burhagertu datekiana : (eta gorriak eztira holako, elhez baizik) ; — 3^{ik} eztakianak nouri eman, galtha bezal eta egiaz katoliko denari, eta jo hortik, beldurik gabe. Ikhous bedi igaran ourtheko armanaka ezagutzeko den bezala, zer den erelijionez erepublikanobat. Eta jakinen du, deputatu izan nahi den erepublikanoua, bere herrian meza entzuten badu ere, hortchen behera aztala erakoutsiz geroz, heltu Parisera, beste potro dela, eta erelijioniaren kountre botzemaile.



1789eko EREBOLUZIONIA



EREBOLUZIONE handia deitzen denaren ourthe buria gañen dugu. Ezta gaichto Ziberoutarek jakin dezen orduko ungruleizka, gaseta gorriek bere gisa khountatzan diena.

Dioie hirour gaizak jin erazi ziela ereboluzionia : 1^{ik} sos mentsak, bil beno haboro igortiak ; — 2^{ik} aitoren seme eta aphezen, bestek eztien zuzenek ; aphezgouan eta soldadogouan egin ukhen zerbutchien ordari, ouhoure suberte elibat, eta legar zounbaitetarik libre ; — 3^{ik} ountsa eztiren kostuma elibat herrell merell jinik denborareki.

Louis XVI eregia, gogorik hobenetako zen. Ministroueki eta bere aholkuzkoueki, chuchentu zian zerbait okherik ; eta abiouan zen bide harez aitzina jouaitera. Horrek zer balio dian dugun ikhous.

Aitoren semek eta aphezek, Ereboluzionia gabe edo aitzinetik utzi zutien bai ouhoure phuntu hourak, bai eta thalarik ez emaiteko zutien zuzenak.

Diharien khountia haouche da : Goberniak biltzen ourthian 475 miliou eta igorten 369 ; zor zaharen entresa 162 miliou beitzen, haren 369 milioueki ekhartzen zian 531 miliou. Hortik ourthiaren burian ments zen 56 miliou. Aldiz ourtheko 56 miliou hourak gutiago ziren, eziaz eta egunko goberniak despendiatzen diana astian. Orduko goberniak, sos beharra dianak bezala, phentsatu zian jesanen ziala berrogei eta hamarbat miliou ourthe zounbaitez, eta gastiak zerbaitez herturen. Hola ariz, abiouan zen berhezteria ourthian 510 miliou. Bena oihu ziren, 50 miliou ourthianjesaitez, Frantziak peko zolala erori behar ziala. Ezta egia egun jesaiten dela hamar, hogeい, hogeita hamaretan haboro, miliarbat, bi miliar? Eta ez ihourk erraiten Frantzia zola zolala eroririk dela.

Gorago aiphatu tugun 510 miliou hek eta ourtheko despendioek ekhartzen zien aitzineko mila ourthez egin izan ziren hirour miliaren entresa. Zortzi ourtheren buruko Ereboluzionian, bazein ments, ez berbera ourthian 56 miliou, bera bai hilabetian 225 miliou. *Erepublikak bankarot egin zian berrogei miliarez* : erran nahi beita, erhien artian igaran ziala zortzi ourthez hamabietan haboro, eziaz eta mila ourthez eregek aitzinetik jesan beitzien.

Louis XVI ari zen denboran arandadunen phakatzen, ereboluzione egilek pillatzen zutien, presountegietan ezarten, eta lephouak mouzten.

1789^{en} aitzinetik igaran ziren mila ourthetan jesanik izan ziren kapitalak oro beno handiago da, orai, goure ourthebatetako budjeta. Eta goure zorra, egun, da, ez berbera hirour miliar bera bai hogeita hamar miliar.

Eta eztie erraiten Frantzia galdurik dela horegatik berbera. Ageri da, aren, aiphatu tugun hirour gaiza horiez besterik bazela, Ereboluzione handia jin erazi zienik.

Gaichkiaren egitiaz baliatzen zirenak baziradian. Hetarik zounbaitek bazien edo aberatstarzun, edo jakitate,

edo kargu handi. Ekhariak baziren gaichki egitera, ik-housten beitzien bazela Frantzian phartebat (ez deus eztakienena) ountsaren ez Ereligioniaren ouhourerik ez arankurarik eztiana. Buhurtu behar zela abiatu ziren, gordaichkaz harginbelzak, eta, jakin araouka Frantziako juje karguz gorenak, ahal bazien eregeri zankhapetan belhara mouzten. Bazioien ber gaiza zounbait Jaoun edo Aitoun seme, fedia edo berthutia galdu zien elibat. Ber gisan mintzo ziren tchapeloun aberats, lehenak izan nahiz. Ordian arabounbak popularen artian ; erege flaku izan ; gosetia jin ; aberats hek eskupetik sos bareiatu. Horik izan dira, egiaz, ereboluzionia egin dienak.

Horez segurtatzen gutie izkiribuz ezaririk izan diren galthouek. Zer galthatzen zian Nazioniak? 1^{ik} Eregegoua ; ez lehen bezalako, bera bai gisa hountara : deputatiak zuzenareki legaren neurtzeko edo ez ; — 2^{ik} Ereligionne katolikoua ; abadagouakouez hountarzunen herzia ; aphezak ouhouraturik eta libertatiareki ; — 3^{ik} zuzenak eta eginbidiak bardin ororentako ; orok legararen phakatzia ; bidia libre ororen kargietara heltzeko ; — 4^{ik} probintziek zuzena berak gobernatzeke, eregeren jakinareki. — horik galthatzen zutian nazioniak ; horiez kanpo zatekianak eztukian indarik. Horier jaraikitzeko bazena ereboluzione egin beharik? Ez.

1789^{an}, hamabi ehun deputatietarik hamarez bestiak pharatu ziren galthouer ; eta halerik ere hamarak jouan burutan. Noula? 1^{ik} Koki eta zelerat elibateki batian Parisen eta probintzietan mundia jeik eraztez ; — 2^{ik} fedegabeduneki eta fedegabeziareki ; — 3^{ik} librantcha baztergabiareki izkiribatzeko zer nahi : libre zela gezur erraitia, ebastia, ehaitia, gaiza ouhouragarri eta sakratieng zankhapetan ezartia.

Horek ekharri zian Ereboluzionia.



Badira ouste dienik 1793^{ko} odol salsen aitzineko egun aldiak eme eta phausu zirela. Ez, hullan ere.

Ezpalia izan 1789 ^{eko} moulliak, eztziren izanen 1793 ^{eko} marraskak. 1789 ^{eko} gizoun gutienik buru bero zirenek, erelijionia ihiztatu zien hañ ountsa nouda 1793 ^{ako} buru berouenek. Eztzien egin gillotina, bena beste orotan hoien bardin izan dira. *Les Girondins* deitzen zutienek, egin zutien legiak presountegian ezar erazteko, eresomatik kanpo igorteko, destara erazteko. Biltzaren Konsituantak hartu zutian Elizako egitekouak, aphezer zin eragin, piaz gora ezari Elizak, idoki aphez fidelak, haien ordariigorri aphez eta aphezkupu lejitulo eztzirenak. Nahi ukhen zutian bortchatu Frantzesak oro, harek nahi zian gisako erelijioniari jaraikitera, alegia houna zela, behin behin ; bena laster egin legebat aphez eta aphezkupu katolikouen kountre. Hantik aitzina, aphez ihizteka, presountegietan sartze, eta gillotinatze. Eta uztailaren 14^{eko} ehaitekak Parisen? Oihu aldiz, libertatia! Bai holako!!!

* * *

Odol ichourte hetan, *Basaburuko* herri biribil ttipibatetan bizi ziren jentiak chuhur eta ichil, erliak khabañian bezala. Agitu zen lozerbat oro albarot. Behar lanthatu karikaren erdian libertatiaren zuhaña! Aren bai, zuhaña lanthaturik ; bena, gaichoua, zañak goihara. Lozer hora patriota bero. Achour larruz egiten du kohabat, buztana tchilintchan bizkar erditara, plafa, plafa, Zuhañ benedikatu eztzenaren khantian igaraitian aldiskal, koha idek, eta kolada. Lehen bi etche aizouetan, bi neskatalari eztzeren enjeñu karamatika hora. Mariñik Katalinari : « Ikhouston iza, debru llozebia fotut hora, bere koha eta koladeki ? Behar diñagu bistatik khentu. » — « Bai, bena ez kutun aski ! » — « Pette gouriak lagunturen gitin. » Ostirale gaian, gaiherdi minian, bel-hagilen orenian, Pette, Mariñi eta Katalina, bessarallta eskier tu : orai emok, tanpa lurialat. Phousa Tchinkaberoko ezkaratzzialat, borthandia zerra. Pettek askoltaz chehe chehia ; Maiñik labia phitz, zuhañ erro gabieren


egura bero, ohata han sar. Libertatiaren zuhañ sorte tristia ! Arthopil erra erazteko egina.

Biharamenian, behien eradatzakouan, goure gizouna koha burian badoua. Karikala heltu: « Zer da haou ! D.... a.... ! » Ucha, ucha, behien aitziniala, phertika kalduz ezkaratzialat, egarriz. Izan bite ! Kapelotcha ourthouk, ilhezaioua jaounts; juratiala laster, erechercha egin, tcherkha orotan, ihoun ez ediren ! Ezpeitzen gogouara jin jouaitia Tchinkaberoko labiala.

* * *

1793^{an}, jakintsu elibatek manhatu zien, eskolako haourek behar zirela zeñhatu, ez ordartio bezala erraitez: *Aitaren eta Semiaren eta Ezpiritlu Saintiaren izenian*, bena bai erranez : *Calotte, Liberté, Egalité, Fraternité*.

Maouleko eskolan, Jaoun erejentak haourbati zeñhatzen erakousten, noula beharzian erran : *Calotte, Liberté, Égalité Fraternité*. Eta gero haourak hañ sarri: « *H... u.... sar zile !* ». Balinba gorri izan nahi eztzen haourari gorritu zeitzon beharriak. Han beha zenak khontatu du izkiribazale houni. Parka bai, gañeran !



KANTABRIAK-USKALDUNAK



BADU laour mila ourthe igaranik, Uskaldun-Kantabriak bere mendietan, direla. Gudiziariak gabe, artzañ eta laborari ; ihouren ez beharrik ez eta lotsarik. Pastetch eta artzarki hounik jan, ezne gizenik hurrupa ; aresen ilhetik egin arropak eta mounjaouak, hen larrutik abarkak. Deus mentsik etzien. Gerla denboretan hurrunetik jiten zeitzen herritazaliak. Zazpi genero algaren oundoska, eta azkena Erroumanoua, Uskaldunen goithu nahiz. Bena, Erroumanouak, Uskal-

dunian bere naousia ediren zian. Kantabriak, izena den bezala, *khanta berriñ ere*, khantalotsez utzultzen ziren, etsaiak ohilturik.

Berantian, Frantzesak zirelako elibat, orori naousitu nahiz, hullantu ziren Ziberouala, Muthuraphalen lurrik gainti, bazterrak arabaskatzen zutielarik. Uskaldunak oro beha zaharrener haritchpiān. Bertan, abarka berriak jaounts, berhoundo makhila har, chorroua bizkarian, habalarria souñeskañ : dugun jakin eia generotto harek galtza khordak thiran dutiane, amaren thitia zouñek hobeki, hek ala guk, egoski dugun.

Maoule alteko ordokian edireiten tie jiten erran den Frantzesak, Dagobert bere erregiareki. Gerla hasten uhaitzaren bedera bazterretarik : makhila lurrialat ; chorroua arabotez betha ; habalarriaz friountan harri chorotcha lantha belarian etsaier ; haiek utzuli gainti merkerik. Etsaien lantzak llaburregi, ezin hel goure gizounetarat. Harri tzurubilak tzurubilari Frantzes zielakouetara ; eta Dagobert eregiak, bere armadereki, hatia khuto hountu.

Uskaldun Kantabrek : « Hor, arren, hor ! ala diren bezalakouak ! Baia bai ! goure bildotsen bazzak guk gal ? Haratche, haratche ! barabite nounbait ! » Eta hantik izena *Baragarri*, Bildozen, orai zubia den guniari.

« Kantabria gerlan erranik da lehoua dela. »



EREpublika eta Ereligionia

OUZTARIK nouitzara, berkeziki bozken hullantziari, thaiik gabe erepublikanouek arapikatzen deiskie hitz horik : « *Ez gira Ereligioniaren kountre : a kountrari.* » Botzemailetarik haborouenak eztira arankuratzen gezurra ala egia dioien erepublikanouek. Ditz-

gun ikher hen obrak zer izan diren, ezi frututik ezagun da zuhaña.

Badakigu 1870^{an}, gerla izigarri hori gunialarik eta Frantzia galtzeko eriskian zelarik, noula oraiko gorriak atrebitu ziren Erepiblikaren erakhartera. Oundoko bozketarik landa ourthe zounbait houn izan ziren, erran nahi beita chouriak naousi zireno. Denbora hartan Ereligionia ouhouraturik eta erespetaturik zen. Bena 1877^{an} urrietaren 14^{an}, nouiz eta Khanberan 363 deputatu gorriak naousitu beitziren, Mac-Mahon kanpo ezarri, eta bestelakorik abiatu zen. Haregatik eztien gaichki handirik egin 1880^{ala} artio, ez nahi gabez, bera ezinez, Senaturetarik haborouak chouri baratu zirelakoz. Berhala hasi ziren hatik, Satanen abilleziareki, Ereligioniaren kountrekolegen hountzen. 1877^{an}, maiatzaren 3^{an}, erepublikanouek galthatu zien Ministrouari *zen egin eta zer egin gei zian Aita Santiaaren jabegouaren althe zirenentzako kountre, ezi hen gorabeherez arankuraturik zela mundia* (gorrien mundia, zeren gorriek usatzen beitie bester bere hutsen egar eraztia). Ordunko ministrouak ihardetsi zeren zer chedetarik abiatu gei zian. Ordian zian Gambetta gorbeltzak tchanphatu hitz gezurti eta moulde-gaitz haou : « Aphezen gaintia, horra etsaia. » Mende-kiozko hitzbat, geroztik erepublikanouak gidatu dutiana. Ordu berian khanberako gorriek ukhatu zien aphezgei prauuber seminariouetan ukheiten zien sokhorria. Berdenboran Eguerdiko herri elibatetan merek defendatu zien, gobernamentiaren baiareki, prosesioniak egin litian Elizatik kanpo.

1879^{an}, sordetikeriak badouatza aitzina. Eskoletako legegeiek espantatzen tie lehentze katolikouak. Aphez-kupu zounbait kountre mintzatu direlakoz, bere kountzenziaren araouera, gaichki erabilten tu gobernamentiak martchouaren 15^{an} eta maiatzaren 16^{an}. Ordartio gobernamentuko Aholkia ezpeitzen noula nahika mouldatzten ahal, gorriek hartzen die aholkuzkouen izentatzeko zuzena, ditian halaz izan berak juje eta partida, geroko

egingei etan. Ber ourthe hortan hanichtto gisaz Ereligionia theritatu zien, aphezak Bureaux de Bienfaisance eta Ospitaletako kountsellitarik jalkhi eraztez, etc.

1880^{eko} ourthe maradikatian, itchouskiago zehaturik da Ereligionia. Baranthallaren 27^{an}, oihustatzen dira ephantchu berri aldiabat eskola Jinkotiaren kountre. Orok ohart tie martchouaren 29^{ian} emanik izan ziren dekretak. Lege gaichtoua eztien gorriek igaran erazi ahal ukhen; bena bardin jouan aitzina, zuzenik gabe. Zer da legia gorrien begietan? Arren Jesuistak igorririk dira bere komentietarik eta eztzere haboro haizu izanen eskola egitia.

Harginbelzek eztzeien pharkhatzen ahal aphez saintu eta jakintsu her eskolierak gobernamentiaren eskoletan beno hobeki eraikiten zutielakoz. Bortchatu izan dira Frantziatik kanpo jouaitera, eta aizoko eresoumetarat erouaitera mundiak inbidiatzan zian bere jakitaria. Ber denboran Erepiblikak Frantzian sar erazten zutian galeretan ziren gizehaile eta suemaile, 1870^{an} Parise chahatu eta erra erazi zien komunartak.

Gero kapouchien, dominikeñen, franzitkeñen eta beste ordenen aldi. Eztien ihouri ere gaichkirik egin, eta bizi ziren misione emaitez edo eskola egitez : aski zen. Propitan zutien etchatarik kanpo, borthak aichkora kolpuz cheheka oundouan, ezarri zutien, bazter orotan, eta goure herria baizik ez aiphatzeko, Donaphaleun, Baiounan, Paouben, Bastidan. Orotan hatik populia fraiden althe zen, eta hanichtto lekhutan jandarma eta tropa behar ukhen die erepublikanouek jin erazi, burzagitzeko.

Uztailaren 8^{an}, lege gorribatek elkhitzten tu hirietan, soldado ospitale eta presountegietan soldadouek zutien aphez edo omonierak. Uztailaren 12^{ko} legiaz, gorriak aplikatken dira zozietatiari eta goberniari ereligioniaren khentzen : ezi oihusta erazten die igantetako eta beste-tako phausia eztatiala hantik harat bortchazko edo obligazionezko phausubat. Halaz nulatzen zien Jin-

kouaren bigeren mania ; bardin gerouago nulatuko die Ezkountzeko sakramentia.

Haour adina igaranik dien neskatilentako, abentiarren 21^{eko} legia medioz, izan da eskola berri Jinkogabe. Hatik, behin behin, eta aitamek galthatzen dielarik, haizu izan zen eskola thenoretarik kanpo katichimaren erakoustia. Geroztik, gasetek, bai gorri bai chouri, khountatu die noula eraikiten diren eskola hetan neskatalik. Ikhasten tie khantore tzar eta theiu elibat, Ereligioniaz trufatzen, Lycée-etako mouthikouek bezala kafetan pipatzen eta edaten.

Kongregazionek mundu orok bezala phakatzen zutien legarrak. Goure gorrier eztzeren aski hen kanpo ezartia. Hen hobeki chahatzeko eginen die beste legebat : Ereligionaren kountre diren legiak eztzitziae hanich khosta. Arren abentiarren 28^{ko} legiaren arauouera, komentiek beharko die phakatu erebeniuentako ehunaren bost, erran nahi beita, etchiak, etcheko hatiek et Elizak botian balia lukien entresa.

1881^{an}. — *Aramaiatzaren* 16^{an} die ezarten eskola dohaña eta obligazionalezkoua, legar phezu berri elibati esker. Orai artio aski mintzatu gira lege horrez. — *Azaroaren* 14^{eko} legiak eztu haboro ezagutzen lur saintu, khiristien ilherrik : higanaoutbat ehorzten alhal dateke lur saintian, khiristibaten saihetsian. Parisen egotch erazten tie ilherrietako khurutchiak. Zer hilen eta Ereligionaren erespetia! *Abentiaren* 27^{ian}, erejenter debetatzent die Elizan khantatzia. Behin behin haizu izanen dira, gobernementiaren phakia alcha artio.

1882^{an}. — Ourthe hountan lazki emendatzen da Erepublikak Ereligioniari egiten dian gerla. *Martchouaren* 28^{an}, zorgailzeeko legiak khentzen tu eskolatik Jinkoua eta katichima, eta Jinkouaren izenaren aiphatzia bera eztateke haizu eskolan. Denbora luze gabe eskoletarik kanpo dirateke fraide eta serora erakousliak, ospitaletarik kanpo ezarri tien bezala erien damutan. *Azaroaren* 2^{an}, Ministrouak manhatzen du eztirela haboro

ezarriko eskoletan Ereligioniaren markarik, khurutche edo Ama Birjina. *Aramaiatzian*, 18^{an}, ministrouak oharterazi zian prefeter, merek badiela zuzena prosesionen ephantchatzeko, dudarik gabe nahiz helt litian chede hartara. *Abentziaren* 21^{an}, Gobernamentuko Aholkiak ministrouari ezagutzen dero eretoria sukuzalen khentzeako zuzena, aitzinetik Aphezkupiari zer uduri zaion galthatu gabe.

1883^{an}. — *Aphirilan*, gobernamentiak erran erazten du bere aholkuzkouer, aphezkupier eta aphezer bere phakiaren ez emaiteko zuzena badiala. Deputatu gorriek hirour phartetarik biga etara aphalerazten die aphezkupien phakia.

Orok badakie gobernamentiak aphez eta aphezkupier emaiten dian diharia eztela berere aphezgouari 1789^{an} ebatsi zutian hountarzunen entresa : eztzian haregatik ouhouñta harek begiratu zortzi ourtheren burian bankarot egitetik.

Uztailaren 1^{an}, Pariseko hogeita hamazortzi ospitale-tako omonierak igorten tie. *Agorrilaren* 30^{ian}, lege berri alkategouaren kountre. Ordartio gobernamentiak eztutian khanbiatzen ahal alkhatiak edo jujiak. Ordunko juje haborouek bere kountzentziaren arauouera eginbider jarraikitzen, eta gobernamentiaren tchestiala, justizia egitera sobera erakharirik ziren. Bestelako jujerik behar zian gobernamentiak bere hutser chuchen itchura emanen zienik. Arren zaharrak kanpo ezar, eta juje gorri parastabat hen ordari jin erazi. Geroztik egun oroz ehi da ikhousten, justizia bera ere gorritu dela.

Kanpitchkeria horiek orok eztutie gorriak orano kountenterazten : behar die agorterazi, ahalbada, Aphezgouaren uthurria. Seminariouer beste goberniek egiten zien sokhorria, herrotik Erepiblikak khentzen du. Luzaz irañ behar badu gobernu hounek, aphezgeiak jouan beharko dira soldado hirour ourthez. Kasik igaranik da legia, ez Frantziaren hounetan, bena Ereligioniari mendekatu beharrez : ezi, legia igaraiten bada, gerlako

ministrouak ourthe bakoitz zazpi mila soldado utzi behar duke bazterrialat ezin haziz.

Aourthenkoz, hortan baratzen gira : dagun ourthian, Erepulika orano bizi bada, ikherturen tugu haren egitate tzarrak Jinkouaren eta Ereligioniaren eretzian. Jinkouak nouiz bere esku pheziaz joko tu haren kountra arizaliak? Hen tenoria jinen da, ezta dudarik. Arte hountan Jinko hounak goure gastigatzeko igorten deiku gaitz suberte orotarik. Erepulikanouek dioie eztiena hek eragiten denbora houna, ez gaichtoua, ez eta erekoilten tchartarzuna. Bena ez tieia hen tzarerriak kolera erazten Jinkoua? Sasouak utzuli-phourdikaturik badira, zer erran nahi da? Duda gabe, Jinkoua khechu dela. Beste aldebatetarik, zer ikhousten dugu?

Erepulika Ereligioniari jatzartzen ago eta hora bere egitekouetan ahalago : bost ehun miliouen zorra ourthe oroz, gorriak jabegouala heltuz geroz. Goitzarrena hasiz geroz, deusetara eztira burutzen ahal ez buruturen ere.

Arren dagun bozkan ez dezagun ahatz zer gaitz egin dien gorriek Ereligioniari. Erna ditian Jinkotiarra, bere khountzentziaren araouera, hutsik egin gabe, botzak emanez.

Ez fida Erepulikaren maletkeriari : Bozkaren hulantziari, erejenter manhatzen du katichimaren egitia, ez herrieta, bena bai kanpañetan. Dioie ere, bazterretan jadanik ezagun dela erejentek mania ukhenik. Bena esparantcha dugu echabakeria horrek ez dutiala ziberutar botzemailiak enganaturen.

Gizoun jakintsu bati galthatzen zeren, noulaz, zounbait erresoumatan, ihour izaten ahal den errege hamalaur ourthetan eta hamazortzi etara drano ez ezkountzen. Arapostia : erresoumabaten gutiago ehi beita emaztebat gobernatzia.



KHOUNTU ZAHAR

Erkula gaskoubat.

JAOUN Bassabat, igaran armanakian aiphatia, karrika joile esteiaribatez gaichki tcherkhaturik izan zen aldibatez, jakin behar ziala zouñek hobeki amaren thitia egoski zien. Bassabat, aphotorouen lotsa eztzena, ezpeitzeron balia halakobateki partzia, phaousu phaousia : « Ouhoure litzikedazu zoure batzia ; bera esparantza dit buruz jinen zitzaitala : ezi erregeren manier jarraikile nuzu. » — « Beste potrouak, goihena juratzen zilarik : « Bai, jinen nitzaizu, buruz eta bertan. » — « Hitzemaiten deitadazu, arren ? » Eta, eskia hedatzen zerolarik : « Ekharzu eskia. » Bestiak emaiten dero. Bassabatek hañ zeron tinkatu, noun, besoua bitphartetan ezarri bei zeron. Orrouaz hasi beitzen, Bassabatek erran zeron : « Jakineraziko deitazu, nouiz houn ziatekian ezpataren erabilteko. »

* * *

Ihizlaria eta bi epherrak.

Bi epher atzaman zutian ihizlariabek, bihamenian adichkidebat khumitatu zian hetarik jatera eta erran bere emaztiari ountsa presta litzan. Hañ ountsa pres-tatu zutian, noun, tcheste zianian, doba, inbeia jin beitzeroen epherkiaren aratchestatzeko. Houn beitzen, berriz ere tchesta ; tchestallakaz, tchestallakaz, epheretarik bata, emaztiaren tchunchura behera jouan zen. Eguerdi hullan zen. Senharak etche khantian igarai-tian beste lan zounbait etarat, emaztiari : « Prestatu tuzia ihiziak ? » Dudatu gabe arapostia : « Bai bata. » Ephera houn zela beitzakian net ountsa, behar ziala oundo egin epherkiz ; lehenaren ber bidiaz igorten du

haren khantiala : « Orai ountsa hiz, nou ! » bere buriari. Hañbestereki khumitaturik zena sartzen da. Etchekoanderiak, ohildurabateki : « Zertara jiten zira houna ? » — « Zoure jaounak khumitatu nizu epherki jatera. » — « Epherki jatera ? ... Bai, gozo hounian duzu ! eztuzu hantik ari : bolaturik duzu zoure kountre; zernahibeita den, hantzhe duzu labelaren zorrozten, bi beharriak mouztu behar deitzula. Heben edireiten bazutu galdia zira. »

Ttottolotto beitzen barazkalzalia, lasterrari emaiten du ahal zian photere oroz. Emaztiak senharari : « Allande, tziaouri bertan, bena bertan ! Zuk khumitatu gizoun harenak, epherak har eta lasterka badouazu. » Allande laster Petteren oundotik : « Eguriok, eguriok ! debria eta, bata phuru utz ezadak. » Pette lasterago, gibelialat : « Ez titiat hiretako ! » Eta emaztia hola jaoukitu.

Arabiako khountia : Erejenta eta ountzizagna.

Eskola egilebat, uhaitzbaten igaraiteko sartzen da oントzizkobat etan. Hara deneko, erraiten dero zañari : « Badakika istoria ? » — « Ez. » — « Arren biziaren erdia galdurik duk. » — Berriz : « Badakitzaka chifriak ? » — « Ez. » — « Arren biziaren hirour laourdenak galdurik dutuk. Horik erran tianeko oントzittoua iralltzen, eta goure bi gizounak hourialat tsouloupousta. Zañak ordian erejentari : « Badakika igerikan ? » — « Ez ! » — « Arren hire bizia oro galdurik duk ! »

Ousouki lanjerosbat. — Mousde Pasteuri jouan zeron gizounbat, eskia ousoukirik, ziouana, ihize gaichtobatek. Barber harek eskiari so, eta erran zian : « Herecha horik eztutuzu horbaten hagin herechak. » — « Jaouna, ez nizu horak ousouki; emaztiak koleran ousouki nizu, eta erraiten dizie horaren ousoukia beno lanjerosago dela emaztiarena. »

RÉVEIL BASQUE DENAREN ERRAN
ZOUNBAITETARIK LANDA

GASETA hori mintzo da irakourzaler heltu izan diren gaizez, Ereligioniaz eta algarren arteko bizitziaz. Espelucha dezagun haren erranetarik zounbait.

1º *Familian bardintasuna.*

« Ezda deus chuchenagorik bardintasun hori baino zeren usatuak garen gauza hori hola ikusten eta pratikatua izaiten Frantziako legeez... »

« Familiako bardintasun hori nork eman gaitu? Gauza ezin gehiago justu hori lehenbiziko errepublikari dugu « zor, duela ehun urthe hurran. »

« Seme gehienarentzat dire aita eta amen fortuna guziak; eta bertze aurhidentzat ona balinbada bere anaia arebak laguntzen baditu eskolatzen edo ofizio baten hartzen, anaia jenerosbat bezala ikhousia da eta guziek behar dute benedikatu. Hurada aberats eta bertze guziak pobre gelditzen dire. »

Erran horik berak edireiten tugu *Compayrē* libru goure eskoletarik saldobat etan denian.

Ikhous, eia! *Réveilak* diouan bezala zirena gaizak Frantzian, eta direia orano beste alde elibatetan? Bede beste kartielak; gitian arrankura Ziberouaz berbera.

Goure boulhasouek zentzuz ikhousten zien primogouak baziala bere hoununia, behar ziala ere izan. Bena primugoua hora eztzen, *Réveilak* diouan bezala, sartzen aitaren *hountarzun orotan*, bera bai etchaltian. Balinbazian beste hountarzunik libre zen, kostumaz, nahi zianaren egiteko. Eta hiltzen bazen ordeñu egin gabe, etchaltia baratzen zuzenez lehen sorthu semiaren-tako edo, noula zen familiako mouda, lehen sorthiaren-

tako, izan ledin seme-etche ala ez. Arastakoua phartituk zen haouren artian, bardina. (Ikhous *Ziberouko Kostuma*, tit. xxvi.)

Haourek orok bardin ukheitia aitaren hountarzunetan, ezinago justo deia *Réveilak* alegatzen dian bezala? Mint zabedi Ziberouko laborari lehen jina. Erranen du galgarri dela lege hori, etchaltiak hañ ttipi diren lekhian. Aitak lehen semiari emaiten dero, legiak libratzen derona oro; eta gutiz bestetan, primia zor etan jarten da aourhider jiten zaienen emaiteko diharutan. Eta egun laborantchak dutian legar, phetcha eta thala suberteki, chutik egonen denez ere badu dudatzeko: hori algar enthele-gatuz phartitzia egiten dielarik. Eta hasten badia prozeskañ, heltu bada etchaltia salduko, bazterra ikhousi beno lehen.

Kostuma zaharrian noula ziren zuzentorrak? Aita amen akisetan phartelialant ziren; eta han, mañatabat edo familiabat eraikiten ahal zien. Eta deusere ezpazien, edo guti, etcheko semiak ezkountzen ziren ungurunetako primeki, etcheko alhabak primieki edo ofizialeki.

Ezkountzen eztzirenak, etchen egoiten primiaren habe houn, edo jouaiten michkandi. Bere post bazutien kabile eta sos zoubait, eta hiltzerakouan uzten zutien geñhatiak etcheko llober. Ororen burian eztziren hañ dolugarri, *Reveilak* erraiten dian bezala.

2º *Erreboluzioniaren hounki eginak*

Réveilak erraiten du Erreboluzione handiak hounki hanitch eman deikula eta hanitch gisatako, baita libertatez gauntika. Aitzinetik lohitiak edo laborariak net dohakabe zirela, khountatzen du saldokaz burumen, esker eta eskuñ bildurik, arrankuratu gabe hala direnez. Eniz ariko ikhertzen zer hounik eman deikun Erreboluzioniak, bena bai erranen hirour gaiza goure Kostuma zaharrekouetarik, eta gero, ikhous bagunianez libertate hanitchen beharrik :

« Denbora orotako kostumaren araou, Ziberouko
« detchema lurrian sorthiak oro, sortzapenez frank,
« libre dirade, koundizionez, bere eztatuz frank, libre,
« esklabotarzun herecharik gabe. Ihourk eztu zuzenik
« hetan, ez hen gaizetan; ez eta bortchatzen ahal gerla
« denboran, ez bakian lagunt eraztera, ez eta oundotik
« jarraikitera...»

« Ziberoutarrek armak erabilten tie bethi bere her-
« riaren begiratzeko... Nahi dienkal biltzen ahal dira
« bere egitekoz, egiten bide eta chede uduri zaitzenak :
« eta hitzarmen horiek lege balio die...»

« Orok badie zuzen arrantzuko eta ihiztekako...»

Réveil Basque, errazu : irabazi dugia edo galdu Erre-
boluzionian?

3º *Obeditu behar dugu Karguduneri eta legeer.*

Obeditu behar dela karguner eta leger, diozu, *Réveil Basque*. Memouria llabur duzu, edo eztzira errepublikano gorriak naousitzu geroztik baizik. So egizu gaseta errepublikanouer 1868^{etik} 1877^{iala} drano, eta ikhoussiren duzu hetan beste gaintitik. (Egia bada ere, ordian gobernia eztuzun gorri.) Houn zeitzien oro goberniaren, kargudunen kountre; buhurtzia, legiaren zankhapetan ezartia. Eta goberniak ezagutzera emaiten bazian behar zela manent izan, gorriek oihu : tyrannie, tyrannie! Orai gorriak beitira gobernazale, eztzunuke nahi, *Réveil Basque*, haien lehen egiten zien bezala izan dadin. Ahatze duzia arren lehen Errepublikako errepublikanouen erran aiphatia : « Tinkaturik denian, Erreboluzione egitia da lehen lehen eginbidia »?

4º *Gizon guziak oro bardin dire legen aitzinean.*

Erraiten duzu, *Réveil Basque*, lehen bazela lekhu erraiteko hanitch : bai hala duzu. Bena, egun, hobeki douatza egitekouak? Ahazkor zira. Eta haregatik eztizu ourthia baizik : eztzira ohartzen President ohiaren su-

hiaz? Nik egin banutu harek egin dutian tzarrerien laourduna bera.... Eta zer egin die legiaren aitzinian bardin horrez?

5º *Kountzentziaren libertatia.*

Hitzbat Errepublika denbora hountan ardura aiphatia haou da : *kountzentziaren libertatia*. Hitz handia eta ederra. Bena hañ goratik aiphatzen dien haborouek badakieia zer erran nahi dian? Ez othe die khinberriala hartzen? *Réveil Basque* gasetaren araouera khountzentziaren libertatiari esker, gizounak zouñ nahi erreligion haitatzen ahal du : izaten ahal da edo katoliko, edo higanaout, edo judio ; nahiago badu, bizitzen ahal da batere erreligionerik gabe. Zer uduri zaizie, Uskaldunak, apostolu houn horrek emaiten deizien erakouspenaz? Zer uduri zaizie libertate horrez? Gaizabat segur da : goure aitek mihidura hori phiztu eta mingartu gabe eztziela entzunen. Higanaout bat baizik ezta hala mintzatzen ahal. Eta higanaoutkeria Uskaldunentako, uzuria beno sordei da : ere bethi hugu ukhen du, artzañak otsoua bezala. Orok badakigu lehentze erreligion hori Maouleko Elizan pheredikatu nahi ukhen zianari zer heltu zeron, eta noula, Maitiaren eskietan aichkorabat argitzen ikhousirik, phederikagiatik igain zen beno zalhiago eraitchi zen, eta orozbat Uskal Herria hustu zian.

Eta orai, aldiz erakouspen galgarri hori egun oroz eta noun nahi entzun behar dugu kountzentziaren libertatia-ren izenian. Uduri gizouna libre dela nahi dianaren egiteko ; uduri Jinkouak bere manien gizounari emaitez eztian zedarrebait haren libertatiari ezarri. Egia da zedarre hora gainti jouaiten ahal dela ; bena, egiaz mintzatzera, hori ezta libertatia, ezpere libertatiaren flakeziabat edo eritarzunbat. Hanbat sordei zedarre hori igaraiten dianarentako : bere gaichtokeriaren saria ukhenen du.

Ez, Jinkobat bada : orok ezagutzen dugu, nahi edo ez. Jinko hora gaiza guzien naousia eta jibia da, gizounarena ere hañountsa. Jinkouak gizounaren lur hountan ezartiareki, eztero utzi nahi dianaren egiteko libertatia. Eztero erran : « Abil, ezagut nezak, edo ez; eskerrak utzul itzadak edo ez; maitha nezak, edo ez; zerbutcha nezak, edo ez ». Eztero erran : « Ouhoura nezak gisabat etara edo bestebat etara, orobat zitadak. »

Ez, ez, Jinkouak bere nahia gizounari ezagut erazi du. Erran dero noula nahi dian hartaz ouhouraturik eta zerbutchaturik izan. Ereljionebat eman dero, bat berbera, eta ez biga, eta ez hamar edo ehun. Egiazko Erreljionebat baizik ezta, eta ezinago ehi da ezagutzen hañbeste erreljione falsuren artian.

Bena hori hala bada, eta hala baizik ezta izaten ahal, nourk sinhetseraziko deiku gizouna libre dela, *Réveil Basque* gasetaren erranaren arauera, hañbeste erreljioneren artian lehen heltiaren haitatzeko, falsu izanik ere; libre, bizitzeko uduri zaion bezala, Jinkouaren maniez antsiarik ukhen gabe? Zer! goure deputatu gorriek, sa-thorrak bezañ utzu direlarik, legebat egin dezagien eta lege harek goure libertatia estekatzen du, etzaiku haizu lege harek debetatiaren egitia; eta goure Jinkouak eman legiaren haousteko baimentia harturen dugu eta baimentu hori deithuko dugu kountzentziaren libertatia? Libertate ederra eta ekhoizpen baliousak ekhartendu tiana.

Zuhañbat noulako den ageri da udaritik : udaria houn, zuhaña houn; udaria gaichto, zuhaña gaichto. Noulako dira goure dotor berrien arauerako kountzentziaren libertatiaren udariak edo ekhoizpenak? Ezinago kharats. Uthurri phozouatu hortarik jiten dira azken ourthe horietan berheziki harroturik etchekitzen gutien egitate latzgarriak. Noulako dira eskola horrek egiten tian gizounak? Uskaraz eztie izenik. Gizoun hourak Jinkouaren kountre azkar dira, goberniaren aitzinian ikhara; Jinkouaren maniak agerian haosten tie, goberniarenak

agerian begiratzen eta gordian haousten, amandari eta gaztelari ezkapa ditian ber. Kountzentziaren libertate hori jarraikiten denak, beste libertaterik ere hartuko. Ez fida hari : ezi kountzenziaren libertatia et kountzenzia gabia bat dira.

Uskaldunak eztu nahi halako libertaterik; Uskaldunaren burian ezta behinere sarthuren egia eta gezur-rak, ountsa eta gaichkia, berthutiak eta biziouak bardin balia direla, ber zuzenak dutiela, gizouna bardin ouhorratzen diela, gizounak hen artian haitatzeko zuzena badiala. Erraiten dugu *zuzena* eta *ez ahal* : ez, ountsa utzirik gaichkiaren egiteko ahal badu eta soberatan baizik eztu egiten. Bena ahal hori ezta egiazko libertatia. Egiazko libertatiaren itchura badu, diharu falsiak egiaz-kouarena bezala : deusere besterik.

Hurren, hurren goure ganik libertate galgarri hori. Jinkouari esker, Uskalduna katoliko da : fediari azkarki etchekiten da ; fediareki egia badu. Eztu haitatzeko lanik : aspaldian haitia egunik da. Bere aitek adoratu Jinkoua adoratu nahi du. Erreligioniak emaiten deitzon eginbididiak bethe nahi dutu, ahal bezañ traba gutieki. Hori du deitzen kountzentziaren libertatia ; hori du galthatzen Errepublikari. Uxkenen du, edo berak hartuko du, ihouren ahalkerik ez lotsarik gabe.



ORANO BI HITZ ESKOLETAZ



JINKOUAREN arauuerako eskolak aitzina atakatzen tie. Hanitch berantu gabe orotan eskola publikouak *Jinkogabetuko* tie. Zounbait departamentutan, hala noula *Nord*-ekouan, eztzaie aski izan goure gobernazaler han heben bat edo beste eskolaren *Jinko-*

gabetzia; berrogeita hamar eskolatarik batian khentzen tie fraidiak eta serorak aldiskal.

Ziberouan aourthen Barkocheko serorer idokirik izanda. Eztugú sobera ikhertuko nouri esker; segurrik dakiguna da administracionia lehiatu dela seroren ordari erejentsa baten igortera.. Ezta dudarik Barkochtarrek eginen diela indarka zerbait seroren begiratzeko : Mountoriesek eman etsenplu ederrari jarraiki ditian eta ountsa beno hobeki eginen die.

Maoulen ere mouthikouen eskola librobaten egitera badouatza. Lurra hutsalltto da, frantzesez erran lioien bezala; bena ouste dugu hanitch denbora gabe bilduren dela sos aski eskola egiten hasteko. Erranik da, hastia aski dela, gaiza orotan, burutzeko.

Orotan kounprentzen die zounbat galgarri den gazte-riarentako eskola Jinkogabia. Jadanik ageri da zertara douatzan eskola hetan eraiki haourak : Parise eta beste herri handietako kanpitchenen pare, badira bai aphezer elhe tzar erraiten. — Orotan ere ikhousten die kanpitchkeria horien zedarre bakhoitza dela eskola libroua. Houna, aita familiatakouer bihotz amiñibaten emaiteko guduka saintu hortan, 1886^{ala} artio eraikirik izandiren Jinkotiar eskolen khountia. Geroztik egin ena, emanen dugu daigun ourthian.

Goberniak egin khountien araouera, hao uren zounbata ari da tchipitzen haren eskoletan eta handitzen eskola librouetan. 1875 ^{etik} 1886 ^{iala}, goberniak fraide eta serorer idoki du 5560 eskola, eta ordari ezarri eskola Jinko gabe. Arabaskatze propittobat da behinkoz; bena eztu berantu araparazionia jitia. Ber denbora hortan 5041 eskola libro eraiki dira fraide eta serorentako. Holetan goberniak persegitu dian gerla ehelegatik fraide eta seroren kountre eztere galerazi 519 eskola baizik ; bitoria mehia da indarka gaitz horentako.

Fraide eta serora idoki eskolez bestalde goberniak zabaltu du 6, 514 eskola publiko, bere erejent saldo gaitzareki. Eta haregatik fraide eta seroretan eskolatzen dira,

Frantziako gazteriatik, hirour phartetarik bat, nahi bada eztien eskolen laourduna baizik.

Ezta dudarik despendiouak emendatu direla Frantzia-rentako eta aouheretan. Eskoletako despendio estraordenariouak khountatu gabe, ordenariak berak, 1876^{an}, 68, 150,620 liberatara heltzen zirenak, 1886^{en} ourtheko doblaturik beno haboro ziren, zirenaz geroz 145, 116, 878 libera. Eta bethi khanberan mintzo dira despendio horien emendatzez, erejenter phakiaren handitzeko.

Hora eskola Jinkotiaren kountre egiten den gerlaren ondorioua. Nourbaitek fornitu behar duke diharia. Gobernia ezta emaile; bestalde eztu diharurik legarek emaiten diena baizik; behar da aren luze gabe eguruki orano legarren goratzebat.

Dezagun khounta zer igaran den leku zounbaitetan eskola khristien khanbiatzian. Herri tchipittobatian seroren khentzera jiten zirela jakin oundouan, emazte aldiabat bildu ziren eskola aitziniala, eta agertu zirenian eskola khanbiazaliak, harri koipuz erezebitu zutien, eta beste aldi batetara behar ukhen zien utzi bere obra tzarra.

Diala ourthebat *Abondant* izena dian herribatetan, merak galthatzen zian aita eta ama elibati,igor litzen bere zazpi haourak eskola Jinkogabialat mehatchazen zutialarik ezbazien obeditzen, sokhorri orotarik gabetzia, bai eta departamentiak familia hari hitzaman zutian 50 liberetarik. Bena amak, bere zuzenetan eta bere kountzentziaren libertatian kolpaturik, ihardetsi zeron: « Beharrak gutuzu, bera goure lanareki hazezin batiogu goure haourak, nahiago ditizugu borthaz bortha erabili, bazterialat utziko tugun beno lehen prezio hortan goure alhabetan dutugun zuzenak, eta igorriko ditizugu seroretarat.


Eztiogu hobeki urhent articulu haou, heben emaitez baizik Aphezkupubatek bere aphezer izkiribuz igorten zutian gomendiak. Houna zer ziouan :

« Erran ezazie eta arra erran aita eta amer, dutien

« hutsarte orotan, igante arrastiriez eta berheziki negian,
« ari eraz ditzen bere haourrak katichimaren ikhasten.
« Enthelega eraz izezie zounbat ogendun diratekian
« lachatzen badira bere eginbide herchienian; zor du-
« tiela haourrer bere egitate eta aholku hounak. Erre-
« jentak deus ezpadio Ereligionaren ezagut erazteko
« eta maitha erazteko, aita amek berek ezagut eraz eta
« errespeta eraz beze. Dudarik batere haien eretzetik
« ez ditiala junta batere gaichki edo gainti egileki,
« hourak egun photeretsu izanik ere. Aita amek, Jin-
« kouak eman eginbidiaren goratarzuniala heltu nahi
« badira, behar die frankoki eta bere buriak gorde
« gabe agertu khristi. »



LABORANTCHAZ



I. — Erekoilta 1888^{an}.

1887^{an}, erekoiltak houn izan ziren, eta, legebatia esker, ezartzen ziana bost libera dret atzetik Frantzian sartzen den zaku ogian, ogiaren prezioa amiñibat goratu zen. Bena ourthiaren urhentziari buruz, kabalen preziouak chahu erori ziren.

Laborariek miseria franko badie païratzeko, eta dei-thoragarriago dena, goure gobernazalek, hitzeman oundouan hen sokhoritzeko lege hounik eginen ziela, eztie deusere egin houn denik. Deputatien nounbrerik handiena, gorri edo erepublikanobeitira, okupaturik dira nountik Ereligionia gal eraziren dien, ahatzerik laborariak eta hen intresak.

Laborariek bere izatiaz desesperatzeko lukie. Hanitch lekhutan, hatik, isieu handirik egiten die, bai erekoilten hobialgo eta nasaiago eragiteko, bai eta kabale ederago-

rik hazteko. Hortakoz, departamentu hanitchetan, ogi hazi, kalitatez hobenak ezaguturik direnak, ereiten tie, gouano, fozfate, eta arastako lur hounkallu berriak erosion; gorotzaren houn eta nasai egiteko bidiak hartzen.

Ezi lur langiliak hasten dira kounprentzen laboranchan, gaiza orotan bezala, berritzapen badela, eta mouda zahar zounbait utzirik, berrier jarraiki behar dela, zeren eta lehenagoko denboretan houn ziren kostumak ezpeitira orai aski perfeit. Desiratzeko da laboranchako mouda berri horien iseiatzen has ditian Ziberouan ere; ezi, beste hanitch kartieletan hala egilek ereusitzen die.

Dugun orai bi hitz erekoilta suberte oroz.

Igaran negu borthitzak ogen egin zian ogi erekoiltari; ere bada, aourthen, Frantzian, hogei miliou zaku ogien ungarunia gutiago igaran ourthian beno. Departamentu haborouetan, ebi luziak egin tialakoz ogi ephaitian, ogiak luzazegi egon dira kanpouan; bihi hanitch ichouri da eta lastoua pharte gastatu.

Bihi marchant handiak nahi izan dira profeitatu labrariaren helgaitz horrez, ogiaren preziouaren gora erazteko. Bada arakhader Kounpaña handibat (hartan kasik oro judio dira) diana ogi zakuz izigarria atzian hanitch merke erosirik, eta nahi ukhen du ministrouer elkhia erazi ogier Frantzian sartzeko ezaririk zen thala. Kounpaña harek esperancha zian, bere ogien sar eraztez Frantzian thala elkhia bezañ sarri, ogiaren prezioua berheñian egonen zela, eta berak irabazi handibat, labarrien kostuz, eginen ziala. Bena eztu ereusitu ahal ukhen, behar ere.

Arren aourthen ogi ments handia dateke Frantzian eta galtze handia gouretako, igorriko dugunaz geroz atzialat bost edo sei miliou goure diharutik ogi mentsaren sar erazteko. Haregatik erekoilta eskaz horrek eztu ogi erriaren prezioua guti baizik gora eraziren.

Eresouma hanitchetan, hala noula Angleteran, Italian, Beljikan, Holandan, ogi gutiago egin die aourthen; bena beste eresouma ogi hanitch eraikiten dienetan,

nasai izanda erekoilta, nahi bada kalitaria ezten igaran ourthian bezañ houn.

Beste erekoilta zounbait izan dira ogiarena beno hobe. Olho, sekale, eta garagar izan da frankoki. Art thouak eder abiatu ziren, bena uda hotz eta bousti egin dialakoz, ezta igaran ourthian bezañ eder; hatik ountsatto bada eta sarthu die denbora ederrareki.

Hanitch lekhutan belhar goiz eginak gastatu dira, denbora eurizu zelakoz; aradall hanitch izan da eta houn.

Kabalen prezioak igaran negian erori ziren sekula beno aphalago; geroztik prezio hourak amiñibat jeiki badira ezira goratu aitzineko ourthetako heñiala, eta ouste dut berriz erortera badouatzala.

Mahastietan, aourthen, mildiouak eztu hañbeste gaitz egin, aihena ussu ihiztatu dielakoz bitriol hourez. Eta, harri egin eztian kartieletan, hala noula Bordeleko gain-tian, ardou hanitch egin die. — Ziberouan ezinago mahats hanitch abiatu zen, bestetan bezala ; bena ukhen dugun uda eurizu eta hotzak ountsatto galerazi du. Hatik, artha khostuz, zounbaitek kountserbi tie eta hen mahastiak uda hatsarrian bezañ fresk eta eder ziren larrazkenian : ere egin die ardou aousarki. Aihenak bazian, aourthen, goure ungu runetan eritarzun berribat, *arrota* deitzen diena. Eztu egin hatik Ziberouan bestetan bezañ beste gaitz mahatsari.

Izan da goure Herrian gaztañaz izigarria. Eztzen ere sagar mentsik, eta hanitchek egin die sagar ardou, segurki oraiko edari drogatiak beno hobe beitateke.



II. Ogien ebakiteko phuntiaz eta moundolletan ezartiaz.

Nesesari deia, abantalla deia ogien ebakitia osoki zohitu gabe ? Houna *Mathieu Dombasle* gizoun aiphatarren arapostia kestione hortan gañen :

« Ogien ebakitiak osoki zohitu gabe, begiratzen du
« bihia ichourtetik, berheziki ogi kalitate zounbait
« eta hola egiten dien lekhu orotan, akort dira errai-
« teko zohitu gabe ebaki ogia hobe dela eiheran bai
« eta ere ogiaren egiteko. Merkhatietan, eiherazañek
« eta okhinek, gozik ebaki ogia ezagutzen die ahorriala
« har eta han erabiltez, eta berant ebaki ogietan beno
« prezioua handiago emaiten. »

Usantcha hounek arren badutu bi abantalla handi : batetik, zortzibat egunez ogikako lanaren aitzinatzia ; eta, bestetik, sasou hartan jiten ohi diren harri eraountsier, erekoltaren ahal bezanbat bertan ezkapatzia ; ezi ourthe oroz entzuten da nōunbait ogia sarthu bezperan harriak chahaturik.

Lanak erakousten du, zortzibat egunez zohi kuskutu beno lehen dela ogiaren ebakitzeko phunturik hobena ; erran nahi beita, nouiz eta lastouak zolatik berde kolorria galtzen hasi beitu, eta azazkulu herecha bihian egiten, barnia eztialarik sobera mardo ez eta osoki gogor turik.

Zer maneratan ogiek behar dukie eguruki zohit urhentzia ? Ezi hala sar balite lanjer balizateke, eta haregatik ogiak, koloratzen hasiz geroz eztu lurretik ez zañetik deus haboro erezebitzen, eta, lastouan du edireiten hebentik aitzina bihiak profeitatu behar dian jusu. Arren ogi bihiak jus hounez ountsa profeitatzeko eta hazteko, indispentsable da lastoua baratch idort edo espallt dadin, bai eta ere bihia. Arren ogi eskutetan du eguruki behar zohit urhentzia, eta hanitchez hobekiago moundolletan azaouez moundollak eginik, han ezariz geroz ezpeitu haboro harriaren ez euriaren acholik.

Behinere ikhousi eztianarentako, houna noula ogia ebakitiareki azaouturik moundolletan ezarten den. Ogi ephailek ebaki bezañ sarri, oundotik jarraikiten dira azaouzaliak eta laour azaou chutik antchu gisa ezarten buriak goiti eta aztalak apartaturik, buriak algari

kountre estekirik. Beste laour azaou egin, eta ezarten tie lehen laour azaouer kountre, chutik, haier arrimu. Gero bederatzu gerren azaoubat har, eta harez egiten da moundollari tchapela, azaoua uzkiaz gora eta buriak behera, buriak eskiez apartatzen direlarik, gisabatez noun tchapela hounek estalgibat eginik, moundolla thapaturik beitateke, kapa batez ungruraturik bezala.

Gisa hortara alhorrak trozaturik, laborariak eztu lotsarik ukhen behar erekoilta gasta dakion, eta ogi bihia eztiki zohi urhenturen zaio, idorte izanik ere; aldiz euria edo harria jinik ere, ogia salbaturik date, lasto uzkian diren belharraek ekhiak idorturen ere bai, minthu gabe. Hitzbatez erraitera, ogien moundolletan ezarteko moudak abantalla handiak batu : bihiak eztiki eta idorrak bortchatu gabe hountzen ; euri luzer eta harriari buhurtzen, eta, azkenian, lastoua kabaler jatera emaiteko hanitchez hobe jelkhitzen.

Planta hountan ogiak egoiten ahal dira zounbait astez alhorrian, eta laborariak egurukiten pazentziareki jin dakion ekhia, ari gabe ogi bedakan, ogi utzultzen eta arra utzultzen.

Uskal Herrian, Bachenabarre da lehenik mouda haou esprabi diana, eta dioie hanitch oundorio houna eman ukhen diala. Lyone aldian hola baizik ogikarik ezta haboro egiten, eta Ziberoua ezta bestiak beno gibelago mouda hounen esprabatzeko, eta goure aldetik eztugu dudarik mouda hounek zerbu tchu handia ekharriko diala baizik.



III. Aihenaren eritarzun berribat.

Aspaldiko ourthetan ezagutzen tie Ameriketan mahats morkhoua atakatzen dien eritarzun elibat. Arrot die izena.

Bada arrot beltza, arrot chouria, arrot belcharana, etc. Bena zouin nahi itchuratako izan dadin, eritarzun

horrek mahats mouhouriak gal erazten tu ber gisala. Mahats mouhouri eria lehenik mardotzen da eta gero chimaltzen. Chimalturik egoiten bada, dioie arrot chouria diala. Ardura bihiak belchten dira, eta ordian badie arrot beltza. Morkho zankhoua ere eritzen ahal da : eihartzen da batian phartebat, bestian oro, eta ordian berartarik erorten bereki eramaiten tialarik bera beno lehen eihartu mouhouriak.

Arrot orotarik, beltza eta chouria dira usienik agitzen. Diala hirour ourthe lehentze ezagutu zien Frantziar. Igaran ourthian, Eguerdi pharteko bi departamentutan, gaitz horrek ogen handirik egin zian, eta aourthen bareiatu da gainti orotara eta goure Uskal Herriala ere.

Arrot belz̄a agertzen da maiatzaren urhentzian edo aramaiatzaren lehen egunetan. Atakatzen tu bata bestetik landa ostouak, morkhouak eta laiak, bena haborouenik mahatsa. Eritarzuna agertzen da lehenik ostouetan : egiten dira han hemen oundo tipiñi elibat, ostoua eihart erazten dienak sortzen diren gune orotán ; hen athetziak eragiten tu boutou chehe bizkarzu beltch eta gogor elibat, ageri direnak, ostouaren bi gaintietan. Mahats ostoko thona horik dira eritarzunaren marka ageriak, bihia ataka aitzinetik. Eritarzuna abiatzen denian morkhouan, bihia, phuntan hassirik (haborouetan bederen), arousa kolore jarten da lehenik, gero uchurten, idortzen eta belzten egun zounbaiten buruko ; gero, azkenian, ostouetako boutou belzak bezalakoz bethatzen. Ordenariozki, mouhouri zounbait baizik eztira eritzen ; bena morkhoua osso ossoua ere eihartzen ahal da.

Aihen laietan, ouñddo suberte houra agertzen da thona luche beltz baten itchuran. Eritarzun horen althe da denbora bero eta boustia.

Arrotaren galerazteko eremedio hobena da *la bouillie bordelaise*. Enplegatu behar da azkarrenetik, zazpi kilo bitriol eta hamabost kilo latsun ehun boutilla houren-

tako dianetik. Igaran ourtheko armanakian luzaz esplikatu dugu noula prestatzen den eremedio hori, eta noula behar dian hedatu mahastietan.



III. Latsun hourez zuhañien chouritzia.

Oroldiak eta ihize chehe elibatek flakazten eta indarra idokitzten die aihen zaharrer bai eta zuhañer. Houn da bi etsai horietarik defendatzia, eta houna noula.

Abentuko edo ourtharilako egun eder eta hotz batez behar da nabela lanphuts bateki arhin arhina chahatu zuhañaren achala, phikatu gabe, oroldiz gorderik dien oundouak eta adar zaharrak. Gero, oundoua eta bost ourthetarik aitzina dien adarrak. Boustatzen edo chouritzzen dira hozturik den latsun hour batez. Espedienziak erakousten du gisa hortan trataturik diren zuhañak eta aihen oundouak hanitch direla azkartzen.



V. Noula desegiten den uñhurrietaryk.

Zuhañ fruta ekharlen etsaietarik bat da uñhuria. Segur da ardurau ihize horrek echartazten dutiala lanhare gaztiak bedatsian, bai eta zuhañ heltiak ere emeki emeki, nahi bada ez bethi ourthe bakhoitz. Houna haren kountre berehun ourthe hountan baliatzen den mouienbat, desaperent eta chinkle izana gatik segur dena. — Zuhañ oundouetan ezarten da zour inkhatz chehekaturik. Nouiztarik nouiztara houn da inkhatzaren araberritzia. Ber gisan laster ohilturik dira uñhuriak kaminet eta ebilten dien beste lekhietarik. Ourthebatez, infisiturik zen herribatetan, ezagutu die inkhazginaren baizik eztzela gabe.

Zuhañetara ez uzteko uñhuria igaitera, aski da zuhañaren ondo ondoua ungurian krea mouchi bateki markatzia. Ihour abisatu dira, krea markabat egiten bada uñhurri ibilten den baten aitzinian, harriturik baratzen


dela eta gero gibela ihesi douela. Uñhurria unguratzen bada krea markabatez, kurkurubatetan bezala, ezta atrebituren hartarik jelkhitzera.

Orano ephantchatzen da zuhañetara igaitetik, olio zahar edo laour egunez ekhian egontatubatez oündoua ungurian laour erhi trebesetan boustatzen bada bizpalaour egunez arrount.

Uñhurritzeen galerazteko, desegiteko bide segurrena da gaña ichourtia chabou hour heraki, lantharerik galerazteko eriskurik ezpada; edo petrola zortabat. Petrolaren alphora sartzen da chilorik barnen etan, eta hiltzen dia uñhurriak ithorik edo phozouaturik.



URHENTZEKO, ISTORIA EDO ERASI ZOUNBAIT



HERRIBATETARA jouan zen hartz eta lehou erabilzalebat. Mundia athetu zenian basa ihiberen ikhoustera, oihuz hasi zen : « Lehouaren thegian sartzen denari, mila libera! » Hullantzen da laboraribat, eta erraiten : « Sarthuko nuzu, ni! » Lehou zaña beldurtzen da othe dakianez ofizioua. Badouatza biak thegi borthala; bi giltzarapaz zeraturik zen. Sogilek gibeletik : « Sarthuko deia? Bai! Ez! » Lehouak aramabat gaitza. Buruza-giak gizounari : « Aren fida zira sartzen thegian? » — « Eztit dudarik; erakouts ezadazut nountik sarthu behar dudan. Bena, bortha zabalthu gabe, lanbat baduzu egiteko. » — « Zer? » — « Behar dizu lehouak idoki kanpoat. » — « Gizouna! zer debru mintzo zira? » — « Bai, joku egin dit, sarthuko nizala, bena eztit erran lehoua han delarik. » Balinba solaz egin beetzien behazalek. Hartan urhentu zen.

Emazte batek senhar deputatu izan nahi zenari : « Eztzira, hatik, zoure gisako ! odre houneko gizounbat bezala agertzen zira botzkarier, eta eztakizu zounbat athora duzun. » Senharak : « Zuk bezañ ehi kountatzen ahal tit murkhullan urun hariz egin deiztatzunak. »

Bi pipazale bazouatzan bidajez karapall batetan. Negia zelakoz, lastoz iraouri zien zankhapia. Phirña zounbait eroririk, lastouari su lotzia eztzeron berantu. Lesser eraich, eta lan ukhen zien suiaren ehaitia. Haien oundotik zaldiz jiten zen laborari batek, heltu zenian khan-tiala : « Aspaldian suia phizturik ikhousten nian gibeletik. » — Zertako eztzeneikun jakinerazten ? » — « Eta, zeren debru ! Bada' orai hañbeste berritzapen, noun eta ouste beinian zien karapalla suzko ountzi zounbait zela ! »

Notarien etchen agitzen da hanitch gisatakorik. Gizooun zaharbathiltzen da bassabaster batetan, *Lyonealtian*. Haren hountarzuna nekez egunik, biribil zen ejerki. Egun zounbaiten burian, primu zela ouste zian llobabat, notariala badoua ; eta, deus erran gabe orano, nigarrez hasten da : « Gacho osaba ! hañ houn, hañ maithagarri zena ! Añen eztit haboro ikhoussiren ? » Notariak uzten aphurbat ichilik, eta gero, erraiten : « Badakizu osabak ezteizula utzi deusere... » — « Zer ! ordian goratik, eznizala primu !! Bena, aren, zertako utzi naizu hortche, oren erdi batez nigar egitera inbichilbat bezala ! »

Volney eta beste jakitant-ouste azken denboretako elibat, Ameriketan, aldibatez, itchasouan bere goustiala paseiun, karkallotsez ari ziren, zouñ hobeki, bere gisako elhe tzar eta bourhaou erraiten. Emazte chaharbat ari chokhobatetan kounderen erraiten. Hari buruz gizoun hourak erriz eta naousaz. Jeiki zen tenpestabat, bena noulakoua ! Berhala goure gizounttouak othoitze erraiten. Volneyk emazte haren kounderak eskutik har eta erran,

bai segur debotki. Eraountsia baratu zenian, Jaoun her emazte zaharak : « Doidoia ziek Jinko hounaren eta Ama Birjinaren trufatzen ; eta zouñ Jinkori, edo zouñ sainturi hersatu zirade orai ? » Volneyk arapostia : « Emaztettoua, ihour bera aizinānt handi denian, jakitunt-ouste edo philosophe duzu ; bena ez hatik itchassouan ari denian tenpesta : sinhestia arajiten duzu. »

* * *

Janartorari emaztebat nigarotsez, senharak erhabilaka etchekitzentz dala. Gaizo eretorak gizoun hari, nahi zaionez hara jin : « Eta zer ari zira ? Eztakizia emaztiari esquia gañen phaousatzen dian senharak eztiala ouhourerik ? » — « Eztizu hanitch behar ene emaztiak kouintatzeko ; mukanas khaldu zounbait diot eman ; horra oro. »

Eretorak, emaztiari buruz : « Mukanaz khaldu zounbait ! Eztuzu hori handi. » — « Janartora, ahazten ziozu erraitia, erhiez chahatzen dala sudura ! »

* * *

Ebili nahi eta urhaskal erorten zen gizoun batiterraiten zeren : « Adichkidia, ogen duzu hola edatez. » — « Ez, ziuan ardanoiak ; eztit ogen edan ukhenez, bena bai ebili nahi nizalakoz. »

* * *

Hil aitzinetik zounbait orenez, ardanoibat ohian ttotto eta galthatzen du gathulubat hour dioualarik hil gabe bere etsaiik handienareki bakiak egin nahi dutiala.





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laurdenez




- ⌚ l. l. 8ⁿ, goizanko 6^{or} eta 52^{min}.
 ☺ a. b. 15ⁿ, goizanko 6^{or} eta 51^{min}.
 ☺ a. l. 21ⁿ, aratsanko 100^{or} eta 3^{min}.
 ☺ a. b. 29ⁿ, arastiriko 5^{or} eta 29^{min}.

ARAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a artino.



- ⌚ l. l. 6ⁿ, aratsanko 8^{or} eta 11^{min}.
 ☺ a. b. 13ⁿ, arastiriko, 2^{or} eta 7^{min}.
 ☺ a. l. 20ⁿ goizanko 7^{or} eta 44^{min}.
 ☺ a. b. 28ⁿ, goizanko 9^{or} eta 3^{min}.



1 Astizken.	s. Filipe et. Jak. Ap.	1 Neskanegun.	s. Klaro.
2 Ostegun.	s. Atanasio.	2 Igante.	s. Potin.
3 Ostirale.	Dona Khurutze	3 Astelehen.	sa Klotilda.
4 Neskanegun.	sa Monica.	4 Asteharte.	s. Franzes Kar.
5 Igante.	s. Pio V.	5 Astizken.	s. Florenzio.
6 Astelehen.	J. Johane, Eb. B.L.	6 Ostegun.	s. Norbert.
7 Asteharte.	s. Justin.	7 Ostirale.	s. Gilbert.
8 Astizken.	J. Migelen ag.	8 Neskanegun.	s. Medar.
9 Ostegun.	s. Gregori.	9 Igante.	PHENTEKOSTE.
10 Ostirale.	s. Antonin.	10 Astelehen.	sa Margarita.
11 Neskanegun.	s. Oriens.	11 Asteharte.	s. Barnabe, ap.
12 Igante.	s. Nere eta Akile.	12 Astiz. IV Th.	J. Johane, Fak.
13 Astelehen.	s. Jenio.	13 Ostegun.	s. Antoni Pad.
14 Asteharte.	s. Bonifazio.	14 Ostar. IV Th.	s. Basila.
15 Astizken.	s. Isidro, labor.	15 Nesk. IV Th.	sa Jermena.
16 Ostegun.	s. Ubaldo.	16 Igante 1.	TRINITATE.
17 Ostirale.	s. Paskal B.	17 Astelehen.	s. Avit.
18 Neskanegun.	s. Venanzio.	18 Asteharte.	sa Marina.
19 Igante.	sa Pudenziana.	19 Astizken.	s. Gervasi eta Prot.
20 Astelehen.	s. Bernardin S.	20 Ostegun.	BESTABERRI.
21 Asteharte.	s. Jermeri.	21 Ostirale.	s. Louis Gonz.
22 Astizken.	sa Kiteria.	22 Neskanegun.	s. Paulin.
23 Ostegun.	s. Desire.	23 Igante 2.	s. Eusebio.
24 Ostirale.	Á. B. Laguntzalia.	24 Astelehen.	J. JOHANE BA.
25 Neskanegun.	s. Gregori VII.	25 Asteharte.	sa Eurosia.
26 Igante.	s. Filipe Neri.	26 Astizken.	J. Johane eta Paule.
27 Astelehen.	Rogazioniaik.	27 Ostegun.	s. Prosper.
28 Asteharte.	s. Urbain.	28 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
29 Astizken.	s. Matsimin.	29 Neskanegun.	J. PETIRI eta P.
30 Ostegun.	SALBATORE	30 Igante 3.	J. Pauleren or.
31 Ostirale.	sa Angela, msi.		

UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.

- ⌚ l. l. 6ⁿ, goizanko 6^{or} eta 8^{min}.
- ⌚ a.b. 12ⁿ aratsanko 9^{or} eta 54^{min}.
- ⌚ a.l. 19ⁿ, aratsanko 9^{or} eta 54^{min}.
- ⌚ a.b. 28ⁿ, gaiherdi eta 10^{min}.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 11/2

- ⌚ l. l. 4ⁿ arastiriko oren 1 eta 36^{min}.
- ⌚ a.b. 11ⁿ, goizanko 4^{or} eta 52^{min}.
- ⌚ a.l. 18ⁿ, goizanko 11^{or} eta 52^{min}.
- ⌚ a.b. 26ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 9^{min}.

1 Astelehen.	s. Tierri.	1 Ostegun.	J. Petiri katietan.
2 Asteharte.	A. B. BISITAZ.	2 Ostirale.	s. Alfonso Lig.
3 Astizken.	s. Gillemie.	3 Neskanegun	J. Esteheren edir.
4 Ostegun.	s. Marzial.	4 Igante 8.	s. Dominiche.
5 Ostirale.	s. Zirile.	5 Astelehen.	A.D.M. Elbur.
6 Neskanegun.	sa Mektilda.	6 Asteharte.	J. K. Transfig.
7 Igante 4.	s. Laurens, ka.	7 Astizken.	s. Kajetan.
8 Astelehen.	s. Ujena.	8 Ostegun.	s. Ziriako.
9 Asteharte.	s. Elisabet, p.	9 Ostirale.	s. Jermain.
10 Astizken.	Zazpi anaie m.	10 Neskanegun.	s. Laurenci, m.
11 Ostegun.	s. Pio.	11 Igante 9.	s. Tiburze.
12 Ostirale.	J. Johane Galbert.	12 Astelehen.	sa Klara.
13 Neskanegun.	s. Anaclet.	13 Asteharte.	sa Radegonda.
14 Igante 5.	s. Bonaventura	14 Astizken.	s. Euz. Barour
15 Astelehen.	J. Johane Maj.	15 Ostegun.	A.D.M. ZELIALAT.
16 Asteharte.	A.D.M. KARM.	16 Ostirale.	s. Rok.
17 Astizken.	s. Aletsis.	17 Neskanegun.	sa Emilia.
18 Ostegun.	s. Kamille.	18 Igante 10.	sa Elena.
19 Ostirale.	s. Rizente Paulo.	19 Astelehen.	sa Filomena.
20 Neskanegun.	s. Filibert.	20 Asteharte.	s. Bernat.
21 Igante 6.	sa Pratseda.	21 Astizken.	s. Julien Leskar.
22 Astelehen.	sa Maria Magd.	22 Ostegun.	s. Ipolita.
23 Asteharte.	s. Apolinari.	23 Ostirale.	s. Filipe Beniti.
24 Astizken.	s. Kristina.	24 Neskanegun.	s. BARTTOL., a.
25 Ostegun.	J. JAKOBE, ap.	25 Igante 11.	s. Louis, ereg.
26 Ostirale.	sa Anna.	26 Astelehen.	s. Zephirin.
27 Neskanegun.	s. Galatori. m.	27 Asteharte.	s. Zezaire.
28 Igante 7.	s. Nazari eta Zelze.	28 Astizken.	s. Agosti.
29 Astelehen.	sa Maria.	29 Ostegun.	J. Job. lephom.
30 Asteharte.	s. Abdón.	30 Ostirale.	sa Rosa.
31 Astizken.	s. Inazio Loyola.	31 Neskanegun.	s. Remoun Nonat.

BURUILA edo SETEMER

Eg. llab. dira oren eta 3 laurdenez.



- ⌚ l.l. 2ⁿ, aratsanko 7^{or} eta 44^{min}
 ⌚ a.b. 9ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 2^{min}.
 ⌚ a.l. 17ⁿ, goizanko 4^{cr} eta 58^{min}
 ⌚ a.b. 25ⁿ, goizanko 2^{or} eta 51^{min}.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren eta erdiz.



- ⌚ l.l. 2ⁿ, goizanko or. 1 eta 43^{min}
 ⌚ a.b. 9ⁿ, goizanko or. 1 eta 35^{min}
 ⌚ a.l. 17ⁿ, gaiherdi eta 47^{min}.
 ⌚ a.b. 24ⁿ, arastiriko 2^{or} eta 35^{min}
 ⌚ l.l. 31ⁿ, goizanko 8^{or} eta 40^{min}.

1 Igante 12.	s. <i>Vizente</i> , Aph.	1 Asteharte.	s. Remi.
2 Astelehen,	s. <i>Estebe</i> , erreg	2 Astizken.	<i>Ainguru Begir.</i>
3 Asteharte.	s. <i>Lizier</i> .	3 Ostegun.	s. <i>Vinzeslaz.</i>
4 Astizken.	s. <i>Taurin</i> .	4 Ostirale.	s. <i>FRANZES As.</i>
5 Ostegun.	s. <i>Laurens J.</i>	5 Neskanegun.	s ^a <i>Aura</i> .
6 Ostirale	s. <i>Onesifore</i> .	6 Igante 17.	<i>Arosar. Besta.</i>
7 Neskanegun.	s. <i>Rena</i> .	7 Astelehen.	s ^a <i>Fide</i> .
8 Igante 13.	A.D.M. <i>SORTZ</i> .	8 Asteharte.	s ^a <i>Brijita</i> .
9 Astelehen.	s. <i>Omer</i> .	9 Astizken.	s. <i>Denis</i> .
10 Asteharte.	s. <i>Nikolas T.</i>	10 Ostegun.	s. <i>Franzes Borj.</i>
11 Astizken.	s ^a <i>Eugenia</i> .	11 Ostirale.	s. <i>Sabin</i> .
12 Ostegun.	s. <i>Gi</i> .	12 Neskanegun.	s ^a <i>Domnina</i> .
13 Ostirale.	s. <i>Maurillo</i> .	13 Igante 18.	A.D.M. <i>Amatarz</i> .
14 Neskanegun.	<i>Dna Khurutze</i> .	14 Astelehen.	s. <i>Kalista</i> .
15 Igante 14.	A.M.D. <i>Izens</i> .	15 Asteharte.	s. <i>Teresa</i> .
16 Astelehen.	s. <i>Ziprién</i> .	16 Astizken.	s. <i>Beltran</i> .
17 Asteharte.	s. <i>Fren Zauriak</i> .	17 Ostegun.	s. <i>Edvije</i> .
18 Astizk. <i>IV Th.</i>	s. <i>Josef. Kup.</i>	18 Ostirale.	s. <i>Luk Ebanj</i> .
19 Ostegun.	s. <i>Janvier</i> .	19 Neskanegun.	s. <i>Grat. Olor</i> .
20 Ostir. <i>IV Th.</i>	s. <i>Eustache</i> .	20 Igante 19.	A.D.M. <i>Chahutarz</i>
21 Nesk. <i>IV Th.</i>	s. <i>MATHIU</i> , Eb.	21 Astelehen.	s ^a <i>Ursula</i> .
22 Igante 15.	A.D.M. <i>Dolor</i>	22 Asteharte.	s. <i>Petiri Alk.</i>
23 Astelehen.	s ^a <i>Thekla</i> .	23 Astizken.	s. <i>Leotade</i> .
24 Asteharte.	A.B. <i>Librazala</i> .	24 Ostegun.	s. <i>Rafael, ark.</i>
25 Astizken.	s. <i>Firmin</i> .	25 Ostirale.	s. <i>Krispi</i> .
26 Ostegun.	s. <i>Tomas Vill</i> .	26 Neskanegun.	s. <i>Evarista</i> .
27 Ostirale.	s. <i>Kosme eta Dam</i> .	27 Igante 20.	A.D.M. <i>Patroun</i> .
28 Neskanegun.	s. <i>Etsupere</i> .	28 Astelehen.	s. <i>SIMOUN, Ap.</i>
29 Igante 16.	J. <i>MIGEL, ARK.</i>	29 Asteharte.	s ^a <i>Eusebia</i> .
30 Astelehen.	s. <i>Jeronimo</i> .	30 Astizken.	s. <i>Kazien</i> .
		31 Osteg. <i>Barour</i> .	s. <i>Zirizio</i> .

AZAROUA

Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.




- (⌚) a. b. 7ⁿ, arastiriko 4^{or} eta 15^{min}.
- (⌚) a. l. 15ⁿ, aratsanko 8^{or} eta 45^m.
- (⌚) a.b. 23ⁿ, goizanko 0^r. 1 eta 53^{min}.
- (⌚) l.l. 29ⁿ, arastiriko 5^{or} eta 38^{min}

ABENTIA edo NEGILA

Eg llaburtzen dira 27^{min}., 22^{no}.



- (⌚) a. b. 7ⁿ, goizanko 10^{or} eta 2^{min}.
- (⌚) a.l. 15ⁿ, arastiriko 3^{or} eta 8^{min}.
- (⌚) a.b. 22ⁿ, arastiriko 0^r. 1 eta 2^{min}
- (⌚) l.l. 29ⁿ, goizanko 5^{or} eta 26^{min}.



1 Ostirale.	DONISANTORE.	1 Igante.	ABENTUKO 1 ^a .
2 Neskanegun.	Purg. Arimak.	2 Astelehen.	s ^a Bibiana.
3 Igante 21.	s. Sever.	3 Asteharte.	s. Franzes Xav.
4 Astelehen.	s. Charles Bor.	4 Astizken.	s ^a Barbara.
5 Asteharte.	s. Zakaria.	5 Ostegun.	s. Sabas.
6 Astizken.	s. Leonart.	6 Ostirale.	s. Nikolas.
7 Ostegun.	s. Florent.	7 Neskanegun.	s. Anbrosi.
8 Ostirale.	4 Khoratiak.	8 Ig. Abent. 2 ^a .	A. B KONZEPP.
9 Neskanegun.	s. Teodore.	9 Astelehen.	s. Jeronze.
10 Igante 22.	Elizen Sakr.	10 Asteharte.	s ^a Eulalia.
11 Astelehen.	J. MARTINE.	11 Astizken.	s. Daniel.
12 Asteharte.	s. Marti.	12 Ostegun.	s. Melkiade.
13 Astizken.	s. Stanislaz K.	13 Ostirale.	s ^a Luzia.
14 Ostegun.	s. Josafat.	14 Neskanegun.	s. Paule Khur.
15 Ostirale.	s. Jetruda.	15 Igante.	Abentuko 3 ^a .
16 Neskanegun.	s. Edmon.	16 Astelehen.	s. Eusebio.
17 Igante 23.	s. Gregori, Taum.	17 Asteharte.	s. Lazaro.
18 Astelehen.	s. Odon.	18 Astiz. IV Th.	s. Gazien.
19 Asteharte.	s ^a Elisabet, Hgr.	19 Ostegun.	s. Urbain.
20 Astizken.	s. Felis Valesi.	20 Ostir. IV Th.	s ^a Julia.
21 Ostegun.	A.B. PRESENT ^{ia}	21 Nesk. IV Th.	s. TOMAS, Ap.
22 Ostirale.	s ^a Sezila.	22 Igante.	Abentuko 4 ^a .
23 Neskanegun.	s. Klement.	23 Astelehen.	s. Flavien.
24 Igante 24.	J. Johane Kh.	24 Asteharte.	s ^a Delf. Barour.
25 Astelehen.	s ^a Katalina.	25 Astizken.	EGUBERRI.
26 Asteharte.	s. Pierra Al.	26 Ostegun.	J. EZTEBE, m.
27 Astizken.	s. Virjile.	27 Ostirale.	J. JOHANE, Eb.
28 Ostegun.	s. Sostena.	28 Neskanegun.	Haour Inoz.
29 Ostirale.	s. Saturnin.	29 Igante.	s. Tomas, Kant.
30 Neskanegun.	J. ANDREU, Ap.	30 Astelehen.	s. Sabin.
		31 Asteharte.	s. Silvestre.

MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAOULEN : **m.**, asteharte oroz; **f.**, burullaren 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore oundoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous.; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust.; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26ⁿ. — GARROSEN : **m.**, ostir. amoust.; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg. amoust., **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — HAZPARNEN : **m.**, asteh, amoust; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk.; **f.**, Erramu aitsineko astizkⁿ, *eta* abentⁿ 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh.; **f.**, martchoko *eta* urietako lehen astehn. — OLOROUN : **m.**, ostit. *eta* asteh.; **f.**, maiatz 1ⁿ; *eta* burrullⁿ, 8ⁿ, hirour eg. — PAOUBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ. *eta* Joundane Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietaren asken ostegunian.



Abisbat

Ocharterazten dugu 1886eko setemer lehenian emanik izan den arastatiaren arauera, goure departamentian izanen direla 1890an ouhourezko primen konkoursak, laborantcha handi, arteko eta tchiparentako, ala izan dadin kestionen lurren hourtatziaz, ala baratzez, ala zuhañez ala laborantchako jornaletor eta miskandiez. Cizoun abertitiak bost balio.



Edirengia

I.	Bozkaz 1889 ^{an} ; bozkari khirstien eginbidiaz.....	33
II.	1789 ^{eko} Erreboluzionia.....	34
III.	Kantabriak-Uskaldunak.....	38
IV.	Errepublika eta Erreligionia.....	39
V.	Khountu zahar.....	45
VI.	Réveil Basque denaren zounbait erran etarik landa.	47
VII.	Orano bi hitz eskoletaz.....	52
VIII.	Laborantchaz :	
1º	Erekoilta 1888 ^{an}	55
2º	Ogien ebakiteko phuntiaz eta moundolletan ezartiaz.....	57
3º	Aihenaren eritarzun berribat..	59
4º	Zuhañen latsunez chouritzia.....	61
5º	Noula desegiten den uñhurrietaryk.....	61
IX.	Urhentzeko istoria edo erasi zounbait.....	62